

Gurutze Iantzi hil da Madrilen Goardia Zibilak atxilotuta zeukala

Gaur goizean egingo diote autopsia atzo hildako urnietarraren gorpuari

Gurutze Iantzi, joan den ostegunean atxilotutako urnietarra, hil zen atzo Madrilen Goardia Zibilaren esku zegoela. Bertsio ofizialaren arabera komandantziatik osasun zentrorra zeramatenean hil zen. Berarekin batera atxilotutako bere senarrak, emaztearen oihuak entzun zituela adierazi zuen atzo kaleratua izan ondoren Gurutze Iantziren gorpua ikustera joan zenean.

MADRIL

Gurutze Iantzi joan den osteguneko goizaldean atxilotu zuen Goardia Zibilak Urnietan bere senarrarekin batera. Goiz horretan bertan Madrilgo Goardia Zibilaren 112 komandantziara eraman zuten. Atzo goizaldean, Tres Cantoseko osasun etxerako bidean hil zen, Goardia Zibilaren Zuzendaritzak ezagutaraziko bertsio ofizialaren arabera.

Atzo arratsaldean, Colmenar Viejoko 2. instrukzioko Esther Lobo epaileak, fiskalak, idazkariak eta Amelia Elejandre abokatuak tokiko azterketa bat egin zuten eta gaur goizeko hamarretan mediku forenseak autopsia egingo dio Gurutze Iantziren gorpuari.

Autopsia bukatzen denean, gorpua Urnietara eramango dute beharrezko baimenak eman ondoren, baina atzo arratsaldean ezin zen ziurtatu hori noiz gertatuko zen.

Gurutze Iantziren senarra, Jo-



Gurutze Iantzi hildakoa eta bere senarra Jose Julian Irastorza, ezkontza eguneko argazkian.

se Julian Irastorza Goitia ere atxilotu zuen Goardia Zibilak eta Madrilera eraman, baina bere emaztea hil ondoren aske utzi zuen Entzutegi Nazionaletik pasatu gabe. Atzo bertan jasotako lekukotasunaren arabera, Irastorzak bere emaztearen oihuak entzun zituen Goardia Zibilaren komandantziako ondoko zeldan. Behin baino gehiagotan entzun zuen estulka eta oihuak eta nola zeldatik beste gela batera eramaten zuten.

Goardia Zibilaren Zuzendaritzak kaleratutako bertsioaren arabera, Gurutze Iantzi ostegun arratsaldeko 14.30etan sartu zen Madrilgo Tres Cantos herrian da-

✓ Iantzirekin senarrak oihuka aditu zuen bere emaztea zeldatik.

goen 112 komandandantzian. Sei ordu geroago, 20.15etan, Entzutegi Nazionalako goardiako mediku forenseak aztertu egin zuen baina ez zuen parterik egin.

MEDIKU FORENSEA TELEFONAZ

Bertsio ofizialaren arabera, ostiral goizaldeko 3.15etan «bere kalabozotik dei bat entzuten da». Bularrean mina

duela dio atxilotuak eta mediku forensearekin «telefonoz» jartzen dute harremanetan, aipatutako bertsioaren arabera. «Elkarrizketa amaitu ondoren, mediku forenseak 'Mucorex' pastila bat emateko agintzen dio instruktoreari», jarraitzen du Goardia Zibilaren prentsa oharra. Goizaldeko 4.20etan, berriro abisatzen dute medikua atxilotua ondo ez dagoela ikustean. Hau etorri aurretik, «gai-xoaren egoera larria ikusirik» Tres Cantoseko osasun etxera eramatea erabaki zuten, baina bertara hilik heldu zen Gurutze Iantzi, bertsio ofizialaren arabera.

Manifestaldi eta kontzentrazio ugari atzo Euskal Herrian zehar

DONOSTIA

Gurutze Iantziren heriotza eta Xabier Kalparsoren egoera larria gaitzesteko manifestaldiak eta kontzentrazioak egin ziren atzo arratsean Hego Euskal Herriko hainbat herritan. Donostian, Senideak-ek zortzietan antolatutako kontzentrazioaren ondoren, Herri Batasunak deitutako manifestaldia egin zen 'Bakeaz mintzo dira eta torturatu egiten dute' lemarekin.

Hego Euskal Herriko gainontzeko herrietan mobilizazioak arratseko zortzietan hasi ziren. Hernanin ehun pertsona inguru manifestatu ziren eguerdian Gurutze Iantziren heriotza eta azken atxilotetak salatzeke. Ondoren, istiluak izan ziren Ertzaintzarekin.

Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Hautsik eta Batzarrek bat egin zuten mobilizazioekin.

Urnietako Udalak pleno berezia egin zuen Iantzi herriko bizilagunaren heriotza aztertzeke. Jendea beteta zegoen aretoa eta tentsioa eta sumindura igerri zitezkeen giroan. Alkatea HBk aurkeztutako mozioa irakurtzera eta bozketa egitera —onartu zen mozioa— mugatu zen, eta ondoren amaitutzat jo zuen plenoa, bildutakoen haserre piztuz. Minutu batzuk geroago manifestaldia abiatu zen Urnietako plazatik.

Zumaian, Ramon Kalparsoren herrian, 300 pertsonak parte hartu zuten kontzentrazioan.

Gaur arratsaldeko zazpi terdian ere mobilizazioak egingo dira Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan, HBk deituta.



Urnietan jendea bildu zen plazan eta pleno berezia egin zen. EDURNE KOCH

ERREAKZIOAK

● **JAUREGI:** «Ziur nago bi gertaerak nahigabe jazo direla. Istripu naturalak izan direla eta ez dagoela arrazoi penalik. Hala uste dut eta hala informatu didate. Alabaina, ikerketa osoa exigitu beharra dago eta balizko erantzukizunak argitu ere bai. Baina une honetan lasaitasunez aztertu behar da gertatutakoa eta Euskadinek bakea eskatzen duen kontzentzia etikoa ez da ezertan ere murriztu behar».

● **ATUTXA:** «Gertatutakoak argitu arte itxoin beharra dago. Jazo denari buruzko inolako dudarik ez daukat, zeren eta Corcuera ministroak hildakoarena baieztatzeaz gainera ikerketa hasiko zela baino ez dit jakinarazi. Gertaerak eta balizko erantzukizunak argitzeko eskatzen dut baina hilketa honek gizartearen terrorismoaren kontrako erantzuna oztopatuko duen esaterik ez dago oraindik. Hori bai, gertatu denak borondate oneko edonor tristetu egiten du».

● **ARDANZA:** «Gauza oso larriak dira, oso zataarrak, eta bene benetan arduratzekoak. Oraindik ez dakigu zer gertatu den, eta balorazio bat egin aurretik eskatzen dudana da lehenbailehen argitzea eta transparentzia osoa edukitzea, denek jakin dezagun zer pasatu den hor barruan. Errudun batzuk baldin badaude, horrek ere argi geratu behar du, eta honela sinesmena izango dugu denok eta demokrazian dauden erakunde guztiek».

● **GURRUTXAGA:** «Gertaera tamalgarriak dira hauek, Euskadinek madarikazio gisa etortzen direnak euskal gizarteak inoiz ez bezala indarkeriaren kontra eta bakearen alde erreakzionatzen duenean. Notizia txarra da bakebidearen ikuspegitik, eta alderdi politikoaren betebeharra da irizki publikoari esatea heriotza hauek ere gaitzesten ditugula, eta gertatu dena ikertzeko eta erantzukizunak argitzeko eskatzea».

● **MAYOR OREJA:** «PPk erabateko konfiantza du instituzio demokratikoetan, eta jazo diren gertaera larriak azkar argituko direla espero dut. Erabateko konfiantza dugu Estatuko Segurtasun Indarretan, Polizia autonomoan eta beren agintariengan».

● **GARAIKOETXEA:** «Oso gertaera tamalgarriak dira eta beharrezkoa da zehatz mehatzarritzea. Zentzu honetan, Xabier Albistur Madrilgo gure ordezkariak Barne ministroaren berehalako agerraldia eskatu du. Guk azken ondorioetaraino eskatuko ditugu argibideak, ikerketak ematen duena ematen duela ere, oso gertaera tristea delako izan duen ondorioengatik eta lekuz kanpo gertatu delako».

● **BELLOCH:** Justizia ministroak Gurutze Iantziren heriotzaz «tratamendu objetibo zorroztza» ematea eskatu zien komunikabideei, «biolentziaren aldeko manipulatu ez dezaten». Bellochen esanetan, Gobernuak «informazio gardena bermatu» du ikerketak amaitu ondoren.